

BONANTZA AUZO ELKARTEAREN ADIERAZPENA ALABORTZAZ

Ekaina bitartean, herritar ugari zuzendu dira Bonantza Auzo Elkartera ALABORTZA EGUNA noiz egingo den galdetzera. Eta Alabortzaren biziberritzea sustatzeko azken hamar urte hauetan lanean jardun dugunok geure buruari galdera egin diogu ea zentzurik ba ote duen berriro ere ALABORTZA EGUNA ospatzeak; izan ere, azken deialdietan, xaloki iragarri dugu azkena izango zela ospatutako hura, amets bat zena betetzekotan baitzegoen.

Hala uste bagenuen ere, errealitateari begira jarrita, oker geundela konturatu gara, izan ere zailena lortuta ere, alegia, beharrezko finantziazioa lortuta, Alabortza biziberritzeko proiektua eta hura gauzatzeko erantzukizuna duenak ez du ardura bere gain hartu, zergatik ez badakigu ere. Horregatik, esan dezakegu gaur egun proiektuak behea jo duela.

Bonantza Auzo Elkarreak Alabortza biziberritzeko orain artean egindako ahalegina laburtze aldera, esan behar dugu 2005ean hasi ginela ekinaldi horretan, lehenengo Alabortza Egunerako deialdia eginez. Egun horretan aldarrikatu genuen hondartza lehengora ekartzea, eta baita kantina berria egitea ere, eraitsi egin baitzuten Puntetarako pasealekua berrurbanizatu zenean. Deialdiari sanjuandarrek ikaragarri ondo erantzun zioten, izan ere garbitasun-lanetan jende ugari hartu zuen parte, eta jarraian egin zen festan zer esanik ez. Horregatik, lanean jarraitzeko gogoz, erakunde askorekin elkartu ginen konponbide bat eskatzeko. Bilera horietatik hitz onak jaso bagenituen ere, baliabiderik ez zegoela gogorarazi ziguten.

Aldi berean, Bonantza Auzo Elkarreak mozio bat aurkeztu zuen, eta Pasaia Udaleko udal-ordezkari guztiek aho batez eman zuten aldeko botoa 2006ko maiatzaren 30eko bilkuran. Hona hemen mozioaren edukia:

1.- Biziberritu beharreko gune izendatzea Kalaburtzako hondartza eta ingurua, eta garbiketarako eta mantentze-lanetarako berehalako neurriak hartzea eremua bere onera etor dadin, bai higiearen bai osasunaren aldetik.

2.- Azterketa teknikoa egitea Kalaburtzako eremuak aisialdirako gune izateko zer aukera duen jakiteko eta, horretarako, diru-partida bat bideratzea aurrekontuetan.

3.- Azterketa tekniko guztiak aurkeztu eta aukera guztiak aztertu ondoren, Kalaburtza eta ingurua biziberritzeko eta erabiltzeko planik egokiena egikaritze aldera, eskumena izan dezaketen hainbat erakunderi (Eusko Jaurlaritza, Aldundia, Estatuko administrazioa, Jaizkibia...) finantzazioa eta inplikazioa eskatzea.

Udalbatzak Alabortzaren biziberritzea sustatzearen aldeko konpromisoa hartu zuen, eta urtero ospatu izan da ALABORTZA EGUNA, biziberritzeko proiektuan erakunde gehiago biltzeko helburuz. Hori horrela, behin betiko konponbide bat iritsi bitartean, Aldundiak hondarra ekarri izan zuen hondartza uda garaian erabiltzeko moduan uzteko. Eta horrela joan ziren gauzak, harik eta 2009ko urtarrilean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pasaiako Udalak biziberritzeko ekimen ugari aurrera eramateko xedez lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten arte. Ekimenetako bat Alabortzako biziberritzea zenez, bertako lanetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak 300.000€ diru-kopurua ezarri zituen, beti ere izapidea eta lanaren egikaritzea Pasaiako Udalari zegokiola adierazita.

Alabortza biziberritzeko proiektu honetara jende ugari bildu da. Hasiera-hasieratik izan du Udaleko alderdi guzti-guztien babesa, eta hala jaso da gure ingurua biziberritzeko Aldundiak Udalarekin sinatutako hitzarmenean. Eta zailena lortuta zegoelakoan, zergatik ez dakigula, proiektua ez aurrera ez atzera dago. Aldundiarekin finantziarioa lotuta izanda ere, Pasaiako Udalak azken bost urteotan ezin izan du edo ez du nahi izan proiektua burura eraman. Bakarren batek azalpenak eman beharko ditu.

Egia esateko, nahiz eta Alabortza biziberritzeko helburua lortuta zegoela pentsatu izan dugun, une honetan proiektua ez doa aurrera, eta ez dugu lortu erantzukizuna duenak gauzatzeko lanak benetan bultzatzea.

Alabortzaren alde azken hamar urteetan lanean jardun dugunon ilusioa ikaragarria izan zen hasiera batean, baita sanjuandar askoren ametsa beteta izateko itxaropena ere. Alabaina, etsita gaude, ikusiz gure udala dela proiektua blokeatuta daukana. Eta, honek, ondorio batera garamatza: gure ustez, egoera



honetan ez du zentzurik beste Alabortza Egunik antolatzeak, urtea joan urtea etorri, ez baitago inongo mugimendurik; duela bost urte geunden toki berean gaude.

Sanjuandarrak honen guztiaren jakitun izan behar dute eta, guk, idatzi honen bidez, berriro ere eskatu nahi diegu Udaleko arduradunei beharrezkoak diren urratsak egin ditzatela Alabortza biziberritzeko proiektua gauzatu dadin, hori baita Udalak bere garaian hartu zuen konpromisoa; edo, bestela, argi adierazi dezatela zergatik gaiak ez duen aurrera egiten, proiekturako eta proiektua gauzatzeko finantziazioa lortu zela bost urte igaro direnean.

Pasai Donibanen, 2014ko ekainaren 9an

